# S1 AURKEZPEN SAIOA (ELDUAIN)

Data: 2026ko martxoaren 26

Ordua: 18:00tatik-19:30tara

Lekua: Elduaingo udaletxean

Parte hartzaileak: 10 pertsona: 4 emakume eta 6 gizon

## TAILERRAREN DESKRIBAPENA

Saio honen xede nagusia Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren idazketa-prozesuari hasiera formala ematea da. Horretarako, aurkezpen egituratu bat prestatzen da, eta herritarrei proze-suaren inguruko azalpen zehatzak eskaintzen zaizkie. Lehen fase batean, HAPO baten izapide-

tze-prozeduraren izaera eta egitura azaltzen dira, bere fase desberdinak identifikatuz; ondoren, Elduaingo udalerriko kasu espezifikoaren azterketari heltzen zaio.

Horren harira, aurrerapen-dokumentuan jasotako proposamen nagusiak azaltzen dira lehenik. Jarraian, ingurumen-administrazio eskudunak igorritako irismen-dokumentuan zehaztutako ondorio eta baldintzak aurkezten dira. Ondoren, udalbatzak onartutako helburu eta irizpideak xehetasunez garatzen dira. Hurrengo atalean, 2021ean aurkeztutako Hasierako Onarpenaren Dokumentuan bildutako proposamenak aztertzen dira eta segidan, 2022an egindako doikuntza eta aldaketen berri ematen da. Azkenik, 2022ko proposamen-planoaren eta 2026ko egoera errealaren arteko gainjartze grafikoa egiten da, azken urteetan gauzatutako etxebizitza-garapenak identifikatzeko helburuarekin.

Aurkezpena amaitu ondoren, herritarrei hitza ematen zaie, euren ekarpenak, galderak eta zalantzak argituz eta beharrezko azalpen osagarriak eskainiz. Halaber, plangintza-prozesuan funtsezkoa izango den etxebizitza-beharraren diagnostikoa osatzeko, abian jarriko den inkestaren ezaugarriak, helburua eta parte hartzeko modua azaltzen dira.

## AURKEZPENAREN IRUDI BATZUK




HAPO-REN AURRERAPEN DOKUMENTUA (2018)
DOCUMENTO DE AVANCE DEL PGOU (2018)
07-247
Industriala
Industrial
ELIZAZPI
6 etxebizitza
6 viviendas
ALTSUONDO
4 etxebizitza
4viviendas
Hiri lurzoruaren mugaketa berria
Nueva delimitación del suelo urbano
Desklasifikatu / Desclasificaciones
Berklasifikatu / Reclasificaciones
ECHAURREA
4 etxebizitza
4 viviendas
+ ELSO
SGEL
PLAZA ZAHARRA
4 etxebizitza
4 viviendas
+ ELSO
SGEL
BEOBI GAIN
3 etxebizitza
3 viviendas


ONARTUTAKO HELBURU ETA IRIZPIDEAK (2020)
OBJETIVOS Y CRITERIOS APROBADOS (2020)
Irizpide orokorrak
Criterios generales
Elduaingo beharrak aztertu
Analizar las necesidades de Elduain
Lurraldearen plangintza egokitu
Adecuar el planeamiento del territorio
Lurzoru berrien okupazioa sahiestu
Evitar la ocupación de nuevos suelos
Eragin soziolinguistikoa aztertu
Analizar la afección sociolingüística
Ingurumena
Medioambiente
Ingurumen-kalteak prebenitu
Prevenir daños medioambientales
Baliabide hidrikoak babestu
Proteger los recursos hídricos
Garapen berrien eragina murriztu
Reducir el impacto de los nuevos desarrollos
Paisaia eta biodibertsitatea babestu
Proteger el paisaje y la biodiversidad
Hiri-lurzoruaren azalera ez handitu
No aumentar el suelo urbano
Eraikin eraginkorrak sustatu
Promover edificios eficientes
L. urbanizaezina
S. no urbanizable
Ustiapenak eta lursailak arautu
Regular explotaciones y parcelas
Profesionalak ez diren landa-erabilerak arautu
Regular los usos rurales no profesionales
Baserriak banatzeko aukera eman
Permitir dividir los caseríos
Paisaia eta ingurumen-balioak babestu
Proteger el paisaje y los valores ambientales
Landa-erabilerak sustatu
Impulsar usos rurales
Etxebizitza
Vivienda
Urbanizatutako lurzoruak erabili
Aprovechar los suelos urbanizados
Gazteak finkatu eta erakarri
Afianzar y atraer juventud
Eraikitako ondareari balioa eman
Dar valor al patrimonio construido
Eraikin finkatuetan ataripeak baimendu
Permitir porches en edificios consolidados
Kamio Etxe hiri-lurzoruan sartu
Meter Kamio Etxe en suelo urbano
Industria
Industria
Industria-guneak sendotu
Consolidar las zonas industriales
Eraikigarritasuna handitu I+G+B sustatzeko
Aumentar la edificabilidad para impulsar el I+D+I
Ekipamenduak
Equipamientos
Dauden ekipamenduak sendotu
Consolidar los equipamientos existentes
Gazteentzako guneak sustatu
Promover zonas para jóvenes
Azpiegiturak
Infraestructuras
Zerbitzu-azpiegiturak garatu (teknologikoak)
Desarrollar infraestructuras de servicios (tecnológicas)
Errepideen segurtasuna hobetu
Mejorar la seguridad de las carreteras
Saneamendu-sarea hobetu
Mejorar la red de saneamiento
Ondarea / Kultura
Patrimonio / Cultura
Ondarea babestu
Proteger el patrimonio
Euskararen erabilera sustatu eta komunitatea indartu
Promover el euskera y la vida comunitaria


HASIERAKO ONARPENAREN BERRIKUSPENA (2022)
REVISIÓN DE LA APROBACIÓN INICIAL (2022)
HIRI LURZORUA
SUELO URBANO
2 etxebizitza
6 etxebizitza
AD.01
4 etxebizitza
Pump track
Autobus geltokia
2 etxebizitza
1 etxebizitza
9 jarduketa-eremu eta guztira 27 etxebizitza
9 unidades de ejecución con 27 viviendas en total
DESKLASIFIKAZIOA
6 etxebizitza
Industriala: Eraikigarritasunaren handipena bolumen berdinean baimendu
Industria: Permitir incremento de edificabilidad dentro de la volumetría
4 etxebizitza
1 etxebizitza
1 etxebizitza

## ARGAZKIAK

